



**El único discurso válido será el pronunciado por el o la oradora en el acto.  
Balioa izango duen diskurtso bakarra izango da hizlariak bertan eskainiko duena.**

## **Oihane Agirregoitia**

### **2024.06.01 Euskara eta Kultura (Donostia)**

Gaur Kursaaletan gaude, Donostian. Irailean, zinemaren hiri bihurtzen da nazioartean, eta gaur, euskaraz egindako filmen kartel hauen bidez, ikus-entzunezko ekoizpenetan euskara zaintzearen eta bultzatzearen garrantzia azpimarratu nahi dugu. Baita gure Herria, gure baloreak eta mundua ikusteko modua ezagutzera ematearen garrantzia ere. Euskarazko kultur ekimenen ekoizpena bultzatzea eta 'Europa Sortzailea' programaren deialdietara sarbidea izatea da jauregi honetan gaur hartzen dugun konpromisoetako bat, eta gure hauteskunde programan jasota dagoena.

Europar Batasunean, 50 milioi pertsonak estaturik gabeko nazio bati dagokion nazio-nortasuna dugu, edo Europar Batasuna ez den hizkuntza bat hitz egiten dugu. Horregatik, Europako erakundeek gure aniztasunaren adierazpen horri gaur eskaintzen dioten aitortzen sinbolikoa gaingaitu behar dugu.

Errealitate hau Estibaliz Urresola zinema-zuzendariak eraman zuen Europako Parlamentura, apirilaren 16an. Bere filma '20,000 erle espezie' 2024ko Europako Parlamentuaren Lux sariaren finalistetako bat izan zen. Euskara bere filmean, komunikatzeko eta mundua ulertzeko eta sentitzeko modua izateaz gain, 8 urteko neskato trans batentzat askatasunez adierazteko modu bat ere badela isladatu zuen Estibalizek. Euskarak ez bait du genero markarik.

Eskerrik asko Estibaliz, zure erredua jarraitu nahi dugu. Lanean jarraituko dugu euskara ofiziala izan dadin, Erasmus programetan euskarazko eskaintzak sartu nahi ditugu, euskara Europar Batasuneko hizkuntza plataformetan egotea zainduko dugu, 'Europa Sortzailea' programarako euskal antena bat nahi dugu eta Europako berrien buletin bat nahi dugu euskaraz.

Horrela hobeto beteko dugu 'Aniztasunean bat eginda' leloa. Horrela, Europari ematen diogun kultura-ondarea babesten eta zabaltzen lagunduko dugu. Balioa sortzeko, interesa pizteko eta erakartzeko ahalmena erakutsi duen kultura bat daukagulako.

Horregatik, gutxiengo nazional edo linguistiko horietako kide diren Europako diputatuen aliantza bat babestuko dugu, proposamen horiek ekimen parlamentario bihurtzeko

lankidetzan arituz. Oinarrizko Eskubideen Europako Gutunak debekatzen du hizkuntza edo nazionalitateagatik diskriminatzea. Bertan euskal sena eta euskara sartzeari eskatuko dugu. Europako Parlamentuak urtero Batasuneko zuzenbide-estatuaren kalitateari buruz egiten duen txostenean gure eskubideekiko errespetua zaindu eta monitorizatu dadin lan egingo dugu. Europar askoren oinarrizko eskubideak daude jokoan. Horiek babestea Europar Batasun osoan demokrazia hobetzea da.

---

Hoy estamos en el Kursaal, en Donostia. En septiembre, se convierte en la ciudad del cine a nivel internacional y hoy a través de estos carteles de películas producidas en euskera, queremos resaltar la importancia de cuidar e impulsar el euskera en las producciones audiovisuales, y también de dar a conocer nuestro Pueblo, nuestros valores o nuestra forma de ver el mundo. El impulso a la producción de iniciativas culturales en euskera, y el acceso a las convocatorias del programa 'Europa Creativa' es uno de los principales compromisos que adquirimos hoy aquí en este palacio, y que está recogido en nuestro programa electoral.

En la Unión Europea 50 millones de personas tenemos una identidad nacional que corresponde a una nación sin estado. O hablamos una lengua que no es oficial a nivel europeo. Por eso tenemos que superar el reconocimiento simbólico que las instituciones comunitarias ofrecen hoy a nuestra diversidad. Nuestro compromiso es conseguir que en los próximos cinco años la diversidad que representa el euskera sume en Europa.

Esta realidad la llevó al Parlamento Europeo la directora de cine Estibaliz Urresola el 16 de abril. Su película '20.000 especies de abejas' fue una de las finalistas del premio Lux del Parlamento Europeo 2024. Estibaliz reflejó como el euskera en su película además de ser un sistema de comunicación y forma de entender y sentir el mundo, es una forma de expresarse libremente para una niña trans de 8 años. Pues el euskera no tiene marcas de género. Eskerrik asko Estibaliz, queremos seguir tu modelo. Seguiremos trabajando para que el euskera sea oficial; queremos incluir ofertas en euskera en los programas Erasmus, vigilaremos que el euskera esté en las plataformas lingüísticas de la UE, queremos una antena vasca para el programa 'Europa Creativa' y queremos un boletín de noticias europeas en euskera.

Así cumpliremos mejor el lema 'Unidos en la diversidad'. Así ayudaremos a proteger y difundir un patrimonio cultural como el que aportamos a Europa. Una cultura que ha demostrado su potencial para generar valor, interesar y atraer.

Por eso apoyaremos una alianza de diputados europeos, pertenecientes a estas minorías nacionales o lingüísticas que cooperen para convertir en iniciativas

**Indar  
Berria  
European**  
Tu voz  
importa

Oihane  
Agirregoitia  
Martinez



parlamentarias estas propuestas. La Carta Europea de Derechos Fundamentales prohíbe discriminar por razón de lengua o nacionalidad. Exigiremos incluir lo vasco y el euskera. Y trabajaremos para que el respeto a nuestros derechos se vigile y monitorice en los informes anuales del Parlamento sobre la calidad del estado de derecho de la Unión. Están en juego derechos fundamentales de muchos europeos. Protegerlos es mejorar la democracia en toda la Unión Europea.